



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-01-27**

VIURTEA 1.347 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Jendetza bildu da Abiadura Handiko Trenaren lanak gelditzea exijitzeko

TOLOSA Triangulotik abiatuta herriko kaleak zeharkatu zituzten AHTren proiektuarekin ados ez daudela ohikatuz

SALAKETA «Hainbat komunikabidek eta agintarik aurrera eramaten ari diren intoxikazio kanpaina salatzen dugu» 7



Manifestazio jendetsua izan zen atzokoa, Ynposaketarik ez AHT Gelditu! lelopean. ESTI EZEIZA



Fernando Rojo bidaia tolosarra Etiopian. HITZA

EKIALDETIK AFRIKARA

TOLOSA Istanbuletik Johannesburgora bidaia du Fernando Rojo tolosarrak 4-5

**Ederki igaro dute
etxeko txikienek
Aiz-Orratz
elkarreak
antolaturiko
haur jaialdian**

TOLOSA Mozorroak, ikuskizunak eta pailazoak izan ziren, besteak beste 7

Bidaia Agentzia
bidaiide sercom grupo

BADATOR ASTE SANTUA!!

**ZATOZ ZURE
ERRESERBA EGITERA !!!!**

Erniobera, 6 behea • VILLABONA • Tel.: 943 69 26 93



EHNELUR Elkarte Kooperatiboak honako langileak behar ditu:

- Langile bat komertzial lanak egiteko aseguruaren arloan, Tolosan.
- 2 langile aseguruaren kudeaketarako, hilabete batzuetarako, Tolosan eta Azpeitian.
- Teknikari bat errenta aitorenak egiteko, hilabete batzuetarako, nagusiki Tolosan.
- Langile bat, dokumentuak eskaneatzeko, hilabete batzuetarako, Tolosan.

Interesatuak otsailaren 6a baino lehen EHNELURekin harremanetan jarri ehnelur@ehnelur.net helbidean eta informazio zehatzagoa bidaliko zaie.

Auzo txikia, auzi haundia



» **Uzturretik**

Felix Irazustabarrena

Txintxarrisferako blog batek zabaldu (sareratu) berri du notizia. *Tontokaletik.blogspot.com*-ek aipatzen du, Dignidad y Justicia elkarteak Alegiako Udalarai auzo baten izena aldatzeko eskatu diola. Carrero Blanco hil zuten komandoaren izena, Txikia

hain zuzen, omen du izena gure auzo batek.

Haundia ez izatea izango du erru bakarra guk Belostei deitzen diogun txokoak, Auzo Txikiak. Urtarrilaren 15etik aurrera, kale izena ez bazen aldatzen lege neurriak hartuko zituztela agindu zuten, baina oraindik ez da inongo berririk.

Gaiak anekdota eta katxondeorako bide osoa ematen badu ere, zoritxarrez serioagoa da bizi garen herri eta une honetan. Urruti gabe ezagutzen ditugu inongo heldulekurik izan ez eta, ideiak, ekimenak edo hitzak delitu bihurtzen direnako kasuak. Kartzelak betetzen ari zaizkigu halakoekin.

Notizia sareratzea jarri nahi nuen hasieran, eta ez dakit termi-

noa oso ondo dagoen interneten zerbait zintzilikatzen dela adierazteko, sareratzea bertan zerbait harrrapatzea ere bai baita. Eta hori bai egiten du ultraeskuindar honen saiakerak, sarea bota, dena susmopeko jarri, dena delitu bihurtu, eta hori ez bada beste zerbait jasoko du sareak.

Musika taldeen letrak, pailazoen emanaldiak, marrazki bizidunak telebistan, halako bertsoak Bertso Egunean... dena da salagarri eta hortik sortzen da sarea botatzeko moduko biberoa.

Badirudi haztegia elikatzen ari tuak ere eror daitezkeela saretxoren batean. Atutxa adibide. Jarrai eta KASen legez kanpo uztea galdetzen zuena, guztia dela ETA te-

siaren bultzatzailea, Egin egunero jartzen zen bonba zela edo Y komandoak asmatu zituenari iritsi zaio ilegalizazioaren zipriztina.

Jarrai, Haika, Segi, Askatasuna, Batasuna, EHAK, ANV... *Egin, Egin irratia, Ardi Beltza, Egunkaria*... eta tartean sarean erortzen den guztia.

Sarekadaz sarekada gabiltza aspaldian eta sarea behin eta berriz botatzeaz gain zabaldu egiten da. Gazte antolakuntzatik, herri mugimenduetara, alderdi politikoetara. zerrendak luzatzen doaz.

Orain kaleen izenei tokatu zaie, gero kaleei eta segidan kaletarrei. Ni Kalebeherakoa nahiz, igual Kalegorakoei lehenago tokatuko zaie baina ez dut geldri egon nahi.

Eguzkipean azoka egun polita, barazki eta fruta aukera zabalarekin

Azoka » Bisitari ugari hurbildu zen Tolosara, eguraldi onak bultzatuta; Errezil sagarra agortzeaz egon zen

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka alaitu hasi zen goizko eguzkiarekin. Eguraldia lagun zela eta, bisitari askok aukeratu zuten Tolosako azokatik bueltaxka egitea. Goiza aurrera zihola eta eguzkiak Tolosa berotzen zuela, giroa animatu zen eta egun polita izan genuen.

Eskaintza ere egunaren arabera izan zen. Neguko barazki asko mahaletan, oso itxura onekoa. Fruta zerrenda ere zabal izan zen, nahiz eta errezil sagarra agortzeaz egon zen. Mendiola sagarra, udarea, urra eta intsaurrea ere ikusi genituen mahaletan.

Zuhaitzen aukera ere zabala

Atari kaleko postuetan arbola asko izan ziren, eta oso goizetik agertu ziren erosleak. Oizko frutarbola asko, kiwi ere, eta hauekin baso espezieak, insignisa edo eta douglasaren kasu. Baita ere haritzak, pagokak, urkiak edo eta gaztainondokak.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza Landareak		
Landina	10,00	-
Ziklamena	2,20	5,00
Erroneroa	4,00	6,00
Krisantemoa	3,00	12,00
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktak

Fruta		
Errezil sagarra	0,80	8,00
Matxakana	6,00	-
Pikua	2,00	-
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Ibarrako piparrak	4,00	-
Azenarioa	1,20	7,00

@ **Papereko edizioa.** Gure webgunean, eskualdeko herrietan jazo diren azken ordukoak irakurtzeaz gain, papereko edizioan argitaratu ditugun albisteak ikusteko aukera ere eskaintzen da. Horretarako interesatzen zaizun herrian klikatu (pantailaren ezkerrean) eta ondoren goialdean *Papereko edizioa* dioen aukeran klikatu. Bertan aterako zaizkizu herri horren inguruan publikatu diren berri guztiak, kronologikoki txukunduta. Sartu gure webgunean eta informazio zaituz!

www.tolosaldeko-hitza.info

K Komikia

Martin Mantxo



Berastegiko Iñauterietaz

» Hemeroteka

Juan Garmendia Larrañagaren
'Euskal Inauteria' liburutik hartuta

Gipuzkoako erri ontan Iñauteriak, Garizuma aurreko iru egunetan, Zalduniota, Asteleniota ta Astearteñota jaitu oi zituzten. Igande, Astelen ta Astearteari dagozkienak. Zalduniotan, mozo-rrotu gabe zebiltzan. Oikunde onen jatorria gai orretzaz sarri gerta oi denez. Eliza ta erriaren arteko artu-emanetan daukagu noski.

Kinkuagesima baño bi igandez aurretik, gazteak biltzen ziran bi espensero aukeratzeko. Kargu onek urte barrurako zuen indar. Espenseroak, festetan erabiliko zen diruaren ardura izango zuten; dabaita neskak, dantzarekartzea ere, aurrez, txadako dantzarien naiagoenak jakiniñ, eta Iñauteri jaiaik bear bezela igaro zitezen zaitu.

Ostegun Gizenez, aurren dantzatzeko atsaldetako, espenseroak baserririk urrutienetan atea jotzen zuten. Gañerako gazteak ere, Igande goi-

zetik eginbar ortan laguntzen zieten. Errikoetxetik aterako ziran Erretorearenera, txistulariak berekin zituztela. Direla irurogeita-bosturte, Lazaro Atxukarro zen txistulari, Berastegiko Ezpeleta bastxekoa. Eskebatze oetzaz 1910-ean argitara zuten Erribar-rrutiko erabakietan, amalugarren atalean, au irakur dezakegu:

«San Juan dantzariak deituak ta gañerako eskekoak, Karnabaletan naiz beste edozein jaitan, kantuan, soñu-jotzen, eskean, beren buruak ager nai dituztenak, Alkatearen baimena bearko dute».

Zalduniota, Asteleniota ta Astearteñota atsaldetako, gazteak, Errege Plazan bertan sokadantza ateratzen zuten. Erri-erabaki oiek berak, Iñauterietako mozo-rrota dantzei buruz, amasegarren atalean au dio:

«Iñaute-jaietan debekatua dago aurrezku naiz soka-dantza mozo-rroturik ateratzea, baña goizeko bederatziatik illuntzerano ibili ditezke era ortan, elizkizun bitartean izan ezik, ta jokabide ta oitura onak bezertzeke. Dena dela, agintari edo ordezkoeak badute eskubide utsegille ta gaizki dabiltzanei arpegi-estalkia kentzeko. Guzien edo norberaren kaltetan abiatzera ausar ez ditezten».

Leitzako Ioteak

» Hemeroteka

Juan Garmendia Larrañagaren
'Euskal Inauteria' liburutik hartuta

Leitzan, Iotegiz Garizuma aurreko iru egunetan jaitzen zituzten —Zalduniotan, Asteleniota ta Asteartietan— eta mozo-rrotuta zebiltzan gazte diaz gañera zaldia berak ere.

Zomo-rroturik zebiltzeneri atxoko deitzen zieten. Mutilek, txistulariarekin, Astelen ta Asteartez eskatzen zuten. Asteleniota goizetik erri-kaxkoa, ta Asteartietan baserriek ikustatzen zituzten. Biltzen zutenaz izaten zuten bi egunetako otordutarako. Atxoak zerituztanak, amezkilla jotzean, lotzeantzi ta arpegiurreko arpegi-erri-rik, erromerian eskuartuko zuten.

Gaurkoan, ilbeltzaren irugarren igandez ta ondorengo astelen-asteartez eratzen dira *Festa Txikiak*, lengo Iotegien orde. Erromeri ta eskebatzeak gaudaño dirau, ta bi gazte taldek egiten dituzte.

Txistu-soñuz dabilz basetxe-basetxe, ta kale-etxeetan ostera, auspo-soñuz. Atxoak galdu ziran erabat, eta oraingo mutillen Iñaute-zaugarri, sonbrerua, pañolua tabrusa dira.

Lizartzako herri ihauteriak

» Iritzia

Rafa Aginaga
Otsolar dantzari taldeko kidea

Hamabost urte badira amets hura egia bihurtu zela.

Eta guk zergatik ez ditugu Ihauteriak ospatzen gure aurrekoek bezala? Galdetzen genion geure buruari. Gazte koadrila bat bildu eta ilusioz, beldurratza gogo itzelarekin lanari ekin genion.

Arrakasta handia izan zuen:

puska biltzen baserriaren borondatea, txantxo taldea gazte-txekoen esku, herriko soinu jole eta musikariak kalejiran herriko kaleak alaitzen, 3 dantzari talde plazan ihauteri dantzen erakusketan egiten, makina bat gurdin zein baino zein originalago, herri guztia mozo-rrotuta, eta 500 herritar frontoian, herriko tabernariak prestatutako garbantzuak eta bertan erretako txekorra jaten. Arrakasta ez zen gurea izan baizik eta herriarena.

Naiz eta gora behera batzuk izan, urte politak izan dira. Herri txiki honek, bere Ihauteri propioa zuela erakutsi zuen, xumea, polita, bakarra eta herrikoa. Urtero hori erakusten saiatu gara. Ihauteria ez dela dantzariena edo txantxoena bakarrik, baizik eta herri guztia. Beraz denen parte-hartzea asko eskertzen da, «trapu zahar bat» buruan jarri eta nahikoa da!!

Gaur egun Lizartza herriaz asko hitz egiten da, baina ez ihau-

teriagatik baizik eta herritarren borondatearen kontra kanpotarrak agintzen daudelako. Baina naiz eta herriaren gainean laino beltzak egon eta udalaxearen laguntzarik ez izan, Lizartzako Ihauteriak aurrera jarraituko dute herritar guztien laguntzarekin.

Beraz gonbidatuta zaudete Lizartzako herritarren Ihauteri koloretzu, humoretza eta alai hauetan parte hartzera.

Eta gure lehenengo ihauteri abestiak dion bezala, urtarilaren 26n berriro hasiko gara ihauteriak ospatzen arbasoen antzera... Gora Lizartzako Ihauteriak.

G Gutunak

Pello Odriozolaren gutuna

Maite ditut maite gure bazterrak lanbroak ezkatzen dizkidanean... Gora hazkunde-garapen «iraunkor-jasangarria» (noren-tzat?) kontsumituaren zibilizazioan bizi gara (filosofi bizimodu horrek dakartzan ondorio guztiekin), Gora pertsona-gizarte askatu-solidario (zentzu osoan!) bizipraktikatu beharrean.

Nitasunaren garaian hain zuzen, (kontsumismo xahutzaile eta erosokeriak bultzaturik), ahaztu egin zaigularik [edo ahantzuraz egi(te)n digute] zerbaiten (gizartearen) parte garena eta aldameneko nahiz urrutikoen arazoak gureak ere badirela. Ondo erakutsi digute (egunero erakutsi-bultzatzen gaituzte norabide horretan) nola begiratu-bizi behar dugun ezer ez ikusteko-egiteko, beste(ar)enguzion arazoak gureak ez egiteko eta eguneroko goi-arazo askoren aurrean paso egin eta ez mugitze. (lau urtez behin edo «aukeratzen» ditugun ordezkarien nahiko omen dira edozein gai «konponetze» herritarren iritziak kontutan hartu gabe...)

Pertsona-gizarte eredu-bilaka-

era honetan agian hobe hemen baruan «usteltze» hor kanpoan «barrutik» ihartzea baino. Eztakit ba...

Ilusio-animu-itxaropenak hila nahi dizkiguten honetan eta denon hitza-ideiak-argudioak-proposamen demokratikoak (edo zein gaiari buruz erabakitze eskubidea eta pakearen ametsaren orde errepresioa-kriminalizazioa-desmobilizazioa,... eta batzuen interesak inposatzen zaizkigun honetan, ez ditugun ihartzen-usteltzen utzi gure amets-ilusio-gogo eta seme-alaben (eta ondorengo belaunaldien) etorkizuna. Zintzoki lan egin ezagun behar den interesa-arreta-jakinmina jarri, arazoak sakonki aztertuz-etzabaidatuz, egoerak eskatzen dituen bide eta konpromisoak hartuz eta neurri-eduki aurrerakoiak (iraultzaileak arlo askotan) uztartuz-mamituz gure eguneroko bizitzan (pertsona bezala jokatzu hain zuzen) gizarteak izatera-bilakera giza-tiarra izan dezan (dezagun) eta gure zibilizazioaren garapena benetan jasangarria eta iraunkorra izan dadin guztiontzat (baita naturarentzat ere).

Ondo izan zaitezte, osasunez,

maitasunez, askatasunez eta elkartasunez disfruta ezazue bizitza (baita Inauterietaz ere) eta aurrera ahalaginak eginez Euskal Gizarte-Euskal Herria aske, justu, parte-hartzaile, anaikorra eraikitzeko bidean, itxura-iruzur guztien gainetik eduki sakonez bete-osatuz giza aurrerapena arlo guztietan. Hori ahalbideratuko duen tokian-tokiko eta antolakuntza nazionalak butzatuz. Lanbro (euri jasa askotan) mediatikok... ez gaitzala itxutu eta bizitzaren benetako kalitatearen eragiten duten funtsezko gauzak gaiak.bizipenak- ikusteko-bizitzeko gai izan gaitzela. Pertsona izateak beti merezi du. Besarkada bero bat denontzat.

Euskal presoak Euskal Herrira! (gure semide eta lagunek osasuna eta bizia utzitez dezaten dispersio-kobideetan).

Amnistia konponbide demokratikoaren bidean!

Eskubide guztiak guztiontzat!

Elkartasunik gabe indarririk ez ezertarako!

Ametsak ez dira desagertzen alboratzen ez ditugun bitartean. Errealitate eraldatzea gure eskuetan dago.

Pello Odriozola. Tolosako euskal presoak.


B Blogteka info

Inauteri kontzertua Berdura plazan

Urteroko Inauteri kontzertua eskainiko dute Udaltxistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak igandean [gaur] Berdura plazan 12:15ean. Jende ugari biltzen da kontzertu honetan eta oso giro po-

lita sortzen da Inauteri doinuak kantatuz eta dantzatzuz. Musik Bandako kide ohiak ere ariko dira kontzertu honetan, iaz hasitako ekimenari jarraipena emanez.

Tolosako Musika Banda
<http://www.tolosaldeko-hitza.info/bl-ogak/banda>



TOLOSako UDALA

IRACARKIA

Tolosako Udalak, UDALTZAIN LAGUNTZAILEAK kontratatzeko asmoa du Iñauterietarako (nagusiki larunbata, igandea, astelehena eta asteartea).

BETEBEHARRAK:

- a) 16 urte beteta izatea.
- b) Eskola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo balioidea den ikasketara titulua edukitzea.
- c) Lanpostuaren eginbeharrak betetzeko arazo psikiko edo fisikorik ez edukitzea.
- d) Euskara jakitea, lanpostuaren eginbeharren zuzen betetzeko beharrezkoa den mailan.

- Baldintza hau egiaztatze, bidezko den azterketa egingo zaie izangaiak, Tolosako Udaltearen, 2008ko urtarilaren 31an, goizeko 9etan. Froga, Udaltzain zuzenaren teknikek egingo dute (ez HAEK).

- Azterketa horrek ez du balio ofizialik izango hizkuntza eskakizuna egiaztatze aldera; lanpostu honetako aukeraketa-prozesuan parte hartzeko baino ez du balio izango.

BALORATUKO DIRA:

- a) Lanpostuaren eginbeharrak zerikusia duten itxarotak.
- b) Larrialdiko edo Babes Zibileko zerbitzuetan esperientzia izatea.
- c) Kirol gertaera, ikusizun publiko edo konzentrazio handietako antolamenduan parte hartu izana.
- d) Beste edozein lan esperientzia lanpostuarekin erlazioa duena

Interesaturik dagoenak Tolosako Udalteko Informazioa eta Erregistroan aurkituko du eskaera egiteko orria (Plaza Zaharra 6-A). Eskaerak **2008ko urtarilaren 30eko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira**. Eskaerarekin batera aurkeztu behar ditu betebeharrak a) eta b) apartatuak agiriaren fotokopiak (NANA eta titulua), eta eskaeran jartzen dituen balorakizunenak.

Kontuan harturik egun hauen izatera berezia, salbuespen moduan, trafiko laguntzaileen ordainsariak, gubni gora behera, 500 eurokoak izango dira lau lanegunengatik.

Tolosan, 2008ko urtarilaren 24an
ALKATEA. JOKIN BILDARRATZ SORRON J.



Ezerkerio argazkian, derbitsean zereemonia erlijiosa Etiopian, borobill batean jendea kantari, dantzari eta musikariekiekin eskulanean Ekiakde Hurbiletik Hegoa/ikaraino egindako bilduma. FERNANDEZ



EKIALDETIK AFRIKARA

Bidaia » Bost hilabetetan Istanbultik Johannesburgora bidaia du Fernando Rojo tolosarrak garraio publikoa erabiltz.

KOZIM SAIZARI

Bikiak maite ditu Fernando Rojo tolosarrak, urteak darmanatza bidaizten. Eta gero eta bidaia luzeagoak egiten ditu. Lanokian bainuen esan eta urtarotik abenduara aritu da bidaizaten Istanbultik Johannesburgara, Ekiakde Hurbiletik Afrikazuzaten.

Derbitsean zereemonia
Halabere, Khartoum-en esperientzia polita izan zuen, «bidialko fantasiakoena» azken egunean derbitsean zereemonia ikusi zuen. Onduko derbitsean zereemonia ikusi zuen. Hala esaten du: «Ez da Turkiako bezala. Zereemonia erlijiosa mausoletan botan aurrerant egiten da, hondar zelai batean lau musikari jotzen dituzte.». «Baina nahiko lasai zegoen. Orain okerrago dago», dio. Jordania turistiko bihurtu zuen gero Petra, Issa Hila eta Wadi Rum basamortua. Handik Egiptora joan zen, berriro piramidak ikustera («Egiptian ikusi duan guzua polietenoak») eta gero tenez Abu Simbela, «itzaltzen merzei duen beste ninaritas». Egiptotik, Sudana ferri joan zen eta abentura hori hasi zela dio Rojok: «Ikaratik ez zegoen eta horretan oso zorrotzak dira han. Katari zazpi ordu 45 gradutan ixtoen egun ondoren lortu maen txartela, batzuk izuli egiten zutela-

egi jolasa dute lako. Erdi Arokoa, Gonda hiri turistikoan, iparraldean, ikusi zuten. Halaber, Khartoum-en esperientzia polita izan zuen, «bidialko fantasiakoena» azken egunean derbitsean zereemonia ikusi zuen. Onduko derbitsean zereemonia ikusi zuen. Hala esaten du: «Ez da Turkiako bezala. Zereemonia erlijiosa mausoletan botan aurrerant egiten da, hondar zelai batean lau musikari jotzen dituzte.». «Baina nahiko lasai zegoen. Orain okerrago dago», dio. Jordania turistiko bihurtu zuen gero Petra, Issa Hila eta Wadi Rum basamortua. Handik Egiptora joan zen, berriro piramidak ikustera («Egiptian ikusi duan guzua polietenoak») eta gero tenez Abu Simbela, «itzaltzen merzei duen beste ninaritas». Egiptotik, Sudana ferri joan zen eta abentura hori hasi zela dio Rojok: «Ikaratik ez zegoen eta horretan oso zorrotzak dira han. Katari zazpi ordu 45 gradutan ixtoen egun ondoren lortu maen txartela, batzuk izuli egiten zutela-

hipopotamoak han zehar zuten, baina bere kontura, lasi. Haizeak txalupa gaineko buruzko estalki bota egin zuen eta txalupa beren belantza jarriz zuen, urperazeko arriskuan. «Egerra menderatu genuen hipopotamo bat guregana zuzenean zetorrela ikusi genuen». Inoiz ez dut hainbeste bekurra pasa. Gero eta gertuago zegoen. Hala botan etopiarrek maila botekin txalupa kolpatzen hasi ziren, hipopota-

mo ondo egiten zegoela emantzen zidaten. Eztabaida txiki bat izan genuen Al Kaedari buruz», dio. Mombasa, Kenyako kostaldetik, hartu zuen behelak bertan lapurtu egin zioten moxila, barnuan zegoen guzietatik argazki ekipa, telefono mugikorra, botak, ordularia... «Ordu erdia atera hotelko kafetegia eta gela igi nintzeneko lapurtu zidaten. Oso azkar ibili ziren. Aterata nintzen 6000 argazkietatik 4.000en kopiatu etera bidaliak nituen ordurako. Falta zaitzidan 2.000 argazki horiek kamarenik baino min handiago ematen dituzte», aipatzen du. Ondorengo egunetan Malawiako lakua zeharkatu zuen ferri irarri baretik hegotsaldea, leku eder eta lapurretan abazteko ondo etorri zizaten asatzen. Zimbabwen ere izan zuen isulitu bat: arditu egin zuten tolosarra. «Lapurretan ondoen, kamara txiki bat erosi nuen Tanzania eta aurozko ghotzian argazki atertea begala zela esaten zidan politik. Gelotikan nintzen eta komisidagira jotzeko esaten zidaten. Nik ezten. Denbora oso eztabaidan pasatu ondoren, azkenean nire autobusa hartu eta zuzenean komisidagira eraman zuten. Dira nahi zuten ueste tu. Lehen komisidagiri tratu ez diuna jaso nuen. Bigarrenean berri, hobea izan nuen eta beraien gaitetik jarri nintzen argazkiak berratu zitezkeela esatzen. Libre ater nintzen ordu ordaindu gabe». Hortik, Mozambikera lehenik eta gero Hegoafrikara pasatu zuen, eta handik itzuli zen ezten, eta

«Zure egoera emozionalak zuzenean eragiten du bidaian»

FERNANDO ROJO TOLOSA » Historialaria, irakaslea eta bidaiaia

Elkarrizketa » Bost hilabetetan zehar Ekiakde Hurbiletik Afrikarako bidaia ibili ondoren, lanera itzuli da Fernando Rojo.

ISKAZAR

Zarazuko Ikastolan ari da irakask lanetan Fernando Rojo Tolosa. Bidaia luzearen balantza eginiko Hiruzarrik elkarzaleko tartea hartu du: une onenak eta txarrenak, ezagututako lekuak eta pertsonak, hizkuntzak, txanponak, ekarritakoak.

Nondik duzu bidaia zereemonia?
Alde baretik Tolosan bidai eskola handia dago eta bestealde Udaberri dantzarik taldean aritu nahi urte azkotan eta gure ilusio nahi bakarra ateratzen zuten eta horrek bidairako irpiritua sortzen.

Zergatik aukeratu duzu Afrika?
Afrika sakonago ezagutu nahi nuen. XIX. mendean kolonialista berriztatutako Lurraren Hita (El Cabo) eta Kairo lotu nahi zuten trantzia batetz. Hori izan da nire ibilbidetaren zati bat. Beste alde, Ekiakde Hurbiletik, bereziki politikoa eta historikoa ere erakarritu nuen. Kantabul Kairin lehen etapa gisa eta handik Johannesburgara birgertu eta.

Zain da ikusi duzun lekurik bereziena?
Etiopia. Sudan ere bai, bertan bakarrik zaudela. Gero Zimbabe ere ondo dago, hiri modernoa, kolonialak, turistak asoto josten zuen, baina orain ez, egoera politikoagatik eta ekonomikoagatik.

Eta jende jatorrena, non?
Sudanen eta Sirian dira abegiko txarrak.

Zain izan dira une txarrenak?
Mombasa (Kenya) lapurtu egin zidaten eta ondorengo lau egunetan lau moxila izan nituen: taxista batek hitzartutako prezioa baino hamar aldiz gehiago kobratu nahi zidako. Zazpi ordu iragaritako aratela hartu nuen, baina baretik eztabaida izan eta itzuli egin nuen... Normalan puzituz gero, hiri hartan ditut horrekoko, baina nire erretan nengon lapurretatik eta nire onetik aterantzen. Egoera emozionalak zuzenean eragiten du bidaian.

Eta une onenak?
Eguri hartzen ondoren, behar bada, isulitu egin nintze-lako. Malawiako lakua txalupaz zeharkatu nuen eta hondartzek Karibekoak dirudien jende oso jatorria da, ez beste kolonialistak bezala... Hainbeste eragiten al dute munduko bidaia zereemonia? Hainbeste aldatzen al da herrialde bakoitxetik?

Ez, normalen ez, baina Etiopiako jendea adieraz dezberdina da, kolonia izan ez den herrialde bakarra delako Afrikan. Eta Sudango jendea ere berezia da. Kolonia izan zuten, baina oso islamikoak da, etengabe gerran bizitu dira eta, ondorioz, bertakoak oso bereziak dira. Mozambiken ere desberdina da, latinoagoak, Portugalen kolonia izan baitzen. Beste herrialdeetan antzekoak dira, baina tri buen arteko desberdintza baturik nabari dira, fisikoan, izeran gortuzten... Segurtasunaren aldetik, nolako-

ak dira ezagutu dituzten herrialdeak?
Botswana. Eguri batean sartu nintzen gelditu behar duzu. Dar es Salaam (Tanzania) adieraz dezberdina da, baina ez da dantza izateko 200 metrotera zegoen buruzainera jotzeko taxia hartzeko esaten zidaten. Azkenean ikusi zuten eta buruzainegun orduan nuen. Hegoafrika beste kontu bat. Ez jonteko gomendatzen duan hiri bakarra. Johannesburgo da. Han lapurretak bakarrik ez, han tiroak izaten dira, bortasakeria antolatuta dago. Lurrin Hiriak lasaigiroa da, baina ezin da gusez lasi atara.

Zain da lurralde garestiena?
Botswana. Guri garestiak dira, ezin da moxilo bezala ibili herrialde horietan. 30-40 dolar kobratzen dute hotelik aukeratu. Halabere egun bat edo beste egotea badago, Etiopian berri, 10 dolar erkin eguna egiten duzu, jai, kofeta dena, eta sobretan zaitu, 8 euro dira.

Gehien hartu zaituztena?
Nolako kantarik. Victoriakoak ez nintzen ondo ikusi ez zelako euri garria. Eta gero nire bizitza izusi dudako guzuztik harri gertuena derbitsean fustizian da, jendea transezian ikusta, buelak, korrika eta jauzia. Edo bestela antzerkia ando egiten zuten. Turkiako zuzentzen nuen, baina desberdina zuten. **Esperientzia bereziena bat?**
Lihano Hezokako jendearen elgoketa eta bere ideologia eta helburua ezagutzeko aukera izan zuten.



Bidaia tolosarra Zimbabwoko megal. FERNANDEZ

Nolako bidaia irakurri dituzte?

Jendeak egiten da une politik izate. Beste bidaiariek inbidiatu dute ia beti. Denetik topatzen duzu. Oso jende berezia. Niregaitik guzua bera esango dute. Lau urte bidaizten daraman taivandar bat ezagutu nuen. Diruz garrantzikoan ez zekien nora joan, familiarik inbireman txarra eta sustririk ez zuelako. Beste batek coffman deitzen zion bere buruari eta kafe lekuak bakarrik bihurtu zidaten. Australian bat gobernaren laguntzarik zebilen. Alemaniara asko, fidatutako bat ipar amerikarrik bidai osoan topatu ditut.

Blog bat izan duzu 'Berria' n eta beste zenbait komunikabideetan zure bizipenak azaldu dituzte bidaia berri emanaz.

- **Turkia.** Beti eta bere baxter gutzietan integragia.
- **Siria.** Historik edertzen duen herri abegikorra.
- **Libia.** Hiru «Z»: zigortua, zauritua, zaitua.
- **Jordania.** Bere paisaiki eta naturak edertuta.
- **Egipto.** Monumentu handiek jantzitako.
- **Sudan.** Esporatu gabeko erraldo, gerra luze-anter batek odolke zipiritindua.
- **Etiopia.** Afrikan bakarra, inoiz ez gortatua.
- **Somaliandia.** Existitzen al da? Non dago? Herri harro ez zegoena.
- **Kenya.** Sasi demokrata zuelako, animalien maila ten paradisu.
- **Tanzania.** Politia, erakarritua.
- **Malawi.** Lakua baten inguruan ez zena zoragarria.
- **Zimbabe.** Galaxotasunik zigorren duten herria.
- **Zimbabwe.** Agintari batek hondoratutako herri tristea.
- **Mozambike.** Albia, hondartzek edertzen dutena.
- **Hegoafrika.** Historia krudel baten ondorioz gaito dagoen herrialdea.



Txalupa bat jendea betetzen Nilo ibiluan, Sudango partean. FERNANDEZ



Malawiako lakua zeharkatu duen txalupa. FERNANDEZ

Egun osoko festan mozorroak, jakiak eta giro alaiak izan dira protagonista

Gizartea » Lizartzan guri eta guzti ibili ziren: Leitzaan arratsaldean hasi ziren eta Berastegin, dantzak ireki zuten jai eguna.

NEREA URBIZU

Inauteriak gainean, eskualdeko herrietan jendea eraldatu egin da, soinean beste zerbait jantzi gehienek. Lizartzan eguerdian bildu ziren atzo karrozak eta mozorroak herrian zehar gero bira bat

egiteko. Mr Bean haren autoarekin izan zen, dantzariak karrozan, ATT (Abiadura Txikiko Treña), erizainak, Lizartzako safaria... Eta ahaztu gabe: Aznarri herria asko gustatuko zitzaion, eta ez zuen nahikoa izan herenegungo bisitarrekin. Atzo desfileen zen, Otaolarekin, eta herenegungo bufanda berdinarekin. Ertzain koadrila handi bat atzean zeramaten.

Plazako belardian kanpingendak jarri zituzten eta bertan egin zituzten otordu batzuk ere. Giro bikaina izan zen herrian.

Leitzakoak ere alai

Lau taldeetan banatzen dira mozorroak herrian. Taldeak oihiak eta musika jartzen dute bizilagunak abixatzeko, eta hainbat etxetan jatekoak eta edatekoak izaten dituzte.

Animatzaileak, Huajaloteak, Los del Rio taldea, Sabrina, sanfermineroak, txarangak... Denetik ikusi ahal izan zen Leitzaan.

Gasze batzuk urtero joaten dira Amazabalen Maritxuren etxera. Han harrera ezin hobea egiten die urtero leitza honek, etxeko produktu goxoak eskaintzen, betiko umore ona erakutsiz.

Berastegiko dantzak

Herriko txikiak aritu ziren plaza dantzatzeko. Hiru taldeetan banatuta, dantza herrikoak eskaini zituzten. Mozorrotutako jendea ere ibili zen bertan.

Ondoren, txokolate beroa izan zen Guraso Elkartearen eskutik. Poteoaren ondoren, berriz, afari bikaina izan zen.



Lizartzako Inauterietan kalejira egin dute eguerdian. N. URBIZU



Berastegiko plaza alaitu zuten dantzari txikiak. Ondoren poteoa egingo zuten. Leitzaan puskabiltzan ibiltzen dira. Irudian Maritxuren etxean. Urtero atsegin handiz hartzen dituzte. N. URBIZU



FORMAKUNTZA IKASTAROA (Langileentzat)

KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Aprobisionamenduren kudeaketa	50	2008-02-13	Astelbenerdik ostegunera - 18:00 - 21:00
Aplikazio informatiko aurreratuak (Word-Excel aurreratuak)	40	2008-02-13	
Planoen interpretazioa	50	2008-02-13	
Ordenagailua. Entornoa eta mantentzea (Internet, korreo...)	30	2008-02-18	
Nominak eta Seguratasun Sozialeko eragiketak. (Informatizatuak)	30	2008-02-18	
Berukuntzako instalazioen muntaiak	40	2008-02-18	
Lan-Taldean kudeaketa (Arduradunak)	30	2008-02-18	
Instaladore Elektrikorako Karmetaren prestaketa (Formazioa eta Azterketa, ikastetxean bertan)	100	2008-02-20	
Kontabilitate Plan Orokor Berria eguneratzea (2008)	20	2008-03-3	
Programación de fresadora CNC (Heidenhain)	46	2008-04-02	
CAD 3D Modelatuak eta planoak (Solid Edge)	30	2008-04-07	

BESTE IKASTAROA WEB ORRIAN

Matrikula eta informazioa:
Teléfonoa 943 65 11 47
Santa luzia, 17 - 20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com
Web: www.tolosaldea.com



Egur Sport-ek datak nahi ditu

Ibarra » Gipuzkoako Federazioari zuzendu zaio, adieraziz «dopatzearen aurka gaudela, baina data zehatzak eman ditzala».

ERREDAKZIOA

Egur Sport elkarteak bere erantzuna eman nahi izan dio Gipuzkoako Herri Kirol Federazioari, Unai Otaño aizkolariaren auzian, atzoko HITZAN irakurtzen zenari, hain zuzen.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko pertsona bat behar da. 656 766 439.

Egur Sport-ek federatuta ez dauden probak ere egiten ditu eta horregatik ez da lizentziarik behar. Beraz, Otaño parte hartu ahal izan du Egur Sport-ek antolatutako probetan.

Bestalde, «dopatzearen kontra gaudenez» zigorra aplikatzen den mementotik bukatu arte, Egur Sport-ek neurriak hartuko ditu Otaño parte ez hartzeko probetan. Eta are gehiago, «zigortuta dagoen bitartean ezta ere».

Azaroaren 11n Gipuzkoako Federazioak Egur Sport-eri Unai Otaño positiboa eman duela jakinarazi zion. Horrela, gaineratzen du Federazioak, «dagokion prozedura tramitatzen den bitartean, aizkolariaren lizentzia kautelaz eten behar izatea erabaki du Federazioak».

Egur Sport-ek Federazioari jakinaren gainean dagoela adierazi zion hilaren 21ean. «Eskertuko genuke zigor honen iraupena eta da-

tak ematea, ondorio guztiak kontuan izateko». Egur Sport-ek «ez lioke utziko parte hartzen dopinga dela eta zigortuta dagoen bati».

Federazioaren lizentziaren etetearen neurri kautelarra ez da dopatzearen arauen hausteagatik ezarritako ebazpen zigortzailea. Egur Sport-ek, beraz, dio, Federazioak hitzez hitz aipatutakoei Otaño parte-hartzeak ez dietela kontra egiten.

Kirolari bat zigortuta dago legezko autoritatetik eratorritako ebazpen zigortzaile bat bere gain duenean, oraindik behin betikoa ez baita, errekurtsioa aurkeztu dezakeelako.

«Zigorraren epea zehazteko»

Beraz, Egur-Sport-ek Gipuzkoako Herri Kirol Federazioari Otaño-aren zigorraren epea zehaztea eskatu dio, hauek ere honen gainean neurriak hartzeko eta halako kasuetan parte hartzen ez uzteko.

Ehundaka lagun bildu dira kalean «AHTri ezetz» oihukatzen

Gizartea » AHT gelditu! Elkarlanak egindako deialdiari hainbat lagunek erantzun diote, Tolosako kaleak beteaz

ESTI EZEIZA

Ehunka lagun atera ziren atzo kalera Abiadura Handiko Trenari ezetz esatera. *AHTrik ez! Inposaketarik ez!* lelopean hiriko kaleak bete zituzten eta aldarrikatu zuten ez daudela ados proiektuarekin.

Bi traktore aurretik zitutela, Triangulotik abiatu ziren manifestariak 17:00ak aldera. Aldarrikapen oihuekin batera, perkusio eta trikitixa doinuak ere zabaldu zi-

ren. Manifestazioaren amaieran, bertso batzuk kantatu zituzten, Mulanbok perkusio emanaldia eskaini zuen eta Deabruak Teilatuetan taldekoek ere abesti batzuk jo zituzten. Azkenik, idatzi bat irakurri zuten.

Mobilizazio honekin bat egin zuten, Tolosaldeko EAE-ANV, Tolosako Ezker Batua, Tolosaldeko ezker abertzaleak, Tolosako Aralar, LAB, EHNE, Bilgune Feminista, Euskal Herria Sozialista, Tolosaldeko Gazte Asanbladak, Tolosako Arraun Kluba, Ikasle Abertzaleak, Segi, Alpino, Oargi, Haitzetan Raju, San Esteban auzo-elkarteak, Amaroako antzerki artisaia, Eneko Haritzaren lagunak, Amaroak auzo elkarteko zuzenda-



Ehundaka lagun atera ziren Tolosako kaleetara AHTari ezetz esateko; irudian errealea. E. EZEIZA

ritza batzordea, Gazteluko segalaria, Mulambo afro-samba blokoa eta Angel Navas eta Jon Goikoe-txea *Boli* mendizaleak.

Atzokoarekin batera hainbat ekimen egin dituzte asteazkenean. Besteak beste, atzo kotxe karabana

egin zuten eta AHT Gelditu! Elkarlanaren webgune berria aurkeztu zuten Tolosako Lanbide Heziketa Zentruan.

AHTaren aurkako elkarlanak atzoko manifestazioaren aurkezpenengor salatuz, «AHT-

Tren aurkako herri mugimendua kriminalizatu eta proiektu anti-ekologiko eta anti-sozial honen inguruko eztabaida desbideratzeko asmoz zenbait komunikabide eta agentari politikok abian jarri duten intoxikazio kanpaina».



Inauteriak lau egun aurreratu dira

GIZARTEA » Aiz-Orratz elkarleak antolatutako Inauterietako haur jaialdia ospatu zen atzo Leidor antzokian. Leidor antzokiko eserleku guztiak bete ziren pailazo, pirata, printzesa, indio, amona mantangorri eta abarrez. Ekitaldiaren baitan, mozorro leihaketa, Poxpolo eta Mokolo pailazoak, animatzaileak... Aitor Elduairen eta Laier Lopetegeri aritu ziren aurkezle lanetan, eta beraiek izan ziren zozketaren arduradunak. E. EZEIZA



Eromena gero eta gertuago dago

GIZARTEA » Herri batzuetan herenegun ospatu bazen ere, atzo iritsi ziren Tolosara kaldereroak. 19:00ak aldera atera ziren kaldereroen konpartsa Plaza Zaharretik, honi lagunduz joan ziren hainbat herritar. Hala ere, ekitaldiak goizean goiz hasi zituzten. Hasteko, erraldoiak eta buruhandiak kalejiran ibili ziren. Arratsaldean berriz, haurren txantxo lehiaketa jokatu zen. Egunari amaiera emateko Incansables txarangakoak ibili ziren kaleetan. E. EZEIZA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

PRANTXIKA BELOKI GARMENDIA

Atzo hil zen, Zaldibian, 89 urte zituela.



Zure irria xume alai
begi argien diridira
paregabeko bizkortasun
sortu zinen izadira.
Zu bezelako pertsona finak
mundu honetan gutxi dira.
Eta iristen geran aldira
Arruarte atarira
hantxe izango zera betiko
zu Aitzkorri begira.
Zaldibiako ilobak



ZALDIBIA
2008ko urtarrilaren
27a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Leitza.** Inauteriak: 12:00etan Txu Txu tren, atsaurek Incansables txarangarekin plazatik atera eta gurdiak Leitza industrialdetik, desfilea, 14:30etan atsauren herri bazkaria, 16:00etatik aurrera Txu Txu tren; 18:00etan Incansables txarangarekin Atsauren kale.

■ **Tolosa.** Urtero bezala, Inauteri kontzertua eskainiko dute Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak Berdura plazan 12:15ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *El arca de Noe* haurrentzako filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

■ **Villabona.** *La busqueda 2* filma emango dute Gurea aretoan 19:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro zuzoa, 9. 943 675118.

BIHAR

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Urtez urte indartuz doan ohitura

Anoeta » Ohitura berreskuratu ondoren, II. Dantza-soka eguna ospatu zuten atzo; ehun lagun inguruk hartu zuten parte.

ESTI EZEIZA

Dantza-soka berreskuratzea ideia ona izan ez denik anoetar gutxiak esango dute. Izan ere, hainbat urtetan ohitura galduta bazegoen ere, joan den urtean berreskuratu zuten, eta atzo ospatu zen bigarren aldiz. Haur nahiz heldu, herriko hainbat neska-mutilek hartu zuten parte ekitaldian.

Goizean plazan elkartu ziren dantzari eta musikariak. Ondoren, baserrietara abiatu ziren beraien dantzekin herria alaitzeko. Hala ere, 12:30ak aldera plazara hurbil-

du ziren berriro kalejiran, eta hemen, nesken txanda izan zen. Denak batera ibili ondoren, eta giroa dagoeneko berotuta zegoenean, nesken txanda ailegatu zen. Bazkal aurretik beraiek hartu zuten plaza eta dantzan aritu ziren, herriarren txalo eta oihekien animatuta. Hauek ekitaldiaren baitan, ohiturari jarraituz, ikusleen artean zeuden mutilak hartu eta aurrekua dantzatu zieten.

Nesken artean, aurrekulari lanetan Estibaliz Lasa aritu zen, eta mutiletan, Manex Munduate. Atzeskulari Bakarne Garmendia eta Aitor Urkola aritu ziren.

Nesken saioaren ostean Kuku elkartera bideratu ziren denak bazkaltzera. Arratsaldean, mutilei egokitu zitzaizkien dantzan aritzea. Hauen saioa amaitu eta gero, erromeria egin zuten frontoian.




Giro ederra jarri zuten neskek herriko plazan E. EZEIZA



Ikusleen artean gizon bat atera zuten; behean, neskek dantzan. E. EZEIZA

A Agurrak



Urte askoan!

Joanes (Lizartza). Bihar 2 urte. Zorionak! Zure lehengusu Oinatzen eta bere familiak.



Zorionak!

Zorionak Axi. Bihar 30 urte! Jesuuuss! Zahartzen hasi gela eh! Jeje. Muxu handi bat.



Urte askoan!

Zorionak Hodei. Bihar 11 urte. Ondo-ondo pasa eguna eta ez aldatu.



Urte askoan!

Aimar Artola (Abaltzisketa). Gaur 5 urte. Zorionak eta 5 muxu handi aiton-amonen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Otsailean zure kioskoan



Egin zaitetz harpidedun:

hitzaren harpidedunentzat eskaintza berezia: **18 €/urtean**

Deitu **943 30 35 54**